Frisona, Parda, Pirenaika, Bloden eta Limosina. Arraza hauetakoak dira Ganadu Sariketan parte hartuko duten abereak. Hirurogei bat guztira, aurretik Diputazioak erabakitako sailkapen batetan aukeraturiko ganadua izango da Elgoibarren ikusiko duguna. Draindik ere badago abelazkuntzatik bizi denik, abereak erosi, hazi, saldu... Frisona omen da esnetarako onena. Esne fresko-freskua nahi duenak badaki zer erosi behar duen eta behiak jeixten ere iaioa bada... are hobeto!

RIAt

BSSISOLA

-000~1.



Herrikoak, Meabebasterretxea, Ziarda eta Azpillaga. Batek daki gaupasa ostean arituko diren edo saioaren ondoren egingo duten juerga. Ziur lagunarteko parrandatxoetan ere hasiko direla bertsotan. Baretuko al zituzten ,ordea, sokamuturrako zezenak bertsoz-bertso? Ez ziren atrebituko, eta hobe gainera! Badaezpada.




ASESORIA
GO R

AHOLKULARITZA

. KONTAB I LITATEA
. AHOLKULARITZA FISKALA
. LAN AHOLKULARITZA
. ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
. MULTINACIONAL ASEGURADORA
ASEGURUAk

San Bartolonie 1 hchea, Tet: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

## ABUZTUAK 29

**GOIZEAN**
**Betan:** Idiarena herriko Dultzaineroekin.
**Jarraian:** Sokamuturra

**EGUERDIAN**
**12etan:** Meza Parrokian.
**Ietan:** Udal Txistulari Bandaren kontzertua.

**ARRATSALDEAN**
**2etan:** Jubilatuentzat bazkaria Olaizaga polikiroldegian Gelatxo orkestarekin.
**5etan:** Enbolatuak Arnoren Zezenekin Plaza Txikian.
**6etan:** Elgoibarko Klub Deportiboak antolaturiko "Futbol Txapelketa"ren finala,
**6etan:** Haurrentzal pony eta zezentxoak Plaza Txikian.
**7etan:** Foruen Plazan 14 urtetik beherakoentzat Solteko Dantza Txapelketa.

**GAUEAN**
**11etan:** Suzko erroberen azken emanaldla.
**Jarraian: "Txatanuga** Futz Band" taldearekin, dantzaldia Plaza Handian.

# TXISiu r ONTiERfUA lean




**Eguerdiko ordubatean, Txistulari Udaltaldeak kontzertu bat eskeiniko digu Udaletxeko arkupetan. J.M.Bastida, J.I.Ansorena, LIVI.Iparragirre, F.Korta eta I.Ansorenaren piezek osatuko dute gaurko egitaraua. Txistulariekin batera, Haritz Euskal Dantzari Taldeak ere hartuko du parte. Jose Ignazio Sarasuaren zuzendaritzapean, hurbiltzen diren guztiek une atsegin bat pasako dutela ez du inork zalantzan jarriko.**


**Nhe**

**ALUV1TEL**

**514140,4d4**
*de ge)r,d 14(4etao:*
Santa Ana 3
Tel. 74 36 34

**" Rotura de Puente Termico"dun leihoak edozein koloretan**

**Bainu manparak**

**• Ofizinak banatzeko manparak**

**- Aluminio eta PVCzko pertsianak**



Errek

**GAILUR**

**Teilatu konponketak**

zr 74 34 86
75 15 33




1342101
1114

1973. urteko San Bartolometan ospatu zen lehenengo aldiz Jubilatuen eguna. Hauek ere merezi dute beraientzat egun oso-oso bat izatea. Anaiarteko bazkaria Olaizaga polikiroldegian emango zaie, "Gelatxo"ren musikak dantzatzeko erritmoa jarriko duelarik Gau partera , gazteen inbiririk gabe, sasoian daudela erakutsiko digute "Kaskabarra" taldeak sortuko duen erromeri giro apartean.




## DANTZA TXAPELKETA 7etan



Hamalau urtetik beherako haur eta gaztetxoei zuzendurik dago dantza txapelketa hau. Azkoiti, Lezo, Osintxu eta inguruetatik etortzen zaizkigu partehartzaileak. Herriko ordezkapenik ez da izango. Sariak? Irabazleei txapela banatuko zaie, bigarren, hirugarren eta laugarren postuan gelditzen direnek trofeoa jasoko dute, eta denei emango zaie dirusari bat. Ikusle ugari bilduko da dantzari hauen trebeziaz, arin-arin eta fandangoaz gozatzeko.


**TEKNICALDE, S.A.**

**KALDERERIA TEKNIKA**

Gure fabrikazio planta bitarteko eta makina berrienekin osaturik dago, dena Kalitatearen zerbitzuan.

**FABRIKATUTAKO PRODUKTUAK:**

- TXIRIBIRIEN ETA PIEZEN ERAMALEAK
- MAKINEN KARENATUAK
- LAUKI ELEKTR1KOAK ETA ARMARIOAK
- KONTENEDORE BIRAGAILUAK ETA POSIZIONAGAILUAK
- ZULATZE ETA TOLESDURA LANAK
- KALDERERIA BEREZIA

**OLASO KALEA, 23. POSTAKUTXA 103. ELGOIBAR**
**TEL.: 74 35 19 - 74 39 07 FAX: 74 39 07**

LANBROA






PNEUMAX

11[3] 11E1J101 AX,s.A.

Oiaso Kalea, 15. Tel.: 74 41 44 74 41 74. Fax: 74 40 76 ELGOIBAR
309 postakutxa - 20.600 **EIBAR**

AUTOMMIZAZIO :11:11:10 OSAGAIAK




EDOZEIN ARAZORI AURRE EGINGO DIOTEN ELEMENTU NEUMATIKOAK

KALE INKESTA

# Zer deritzozu gaur egungo txiki egunaz?



**Koldo Galdona**
Ikaslea, 17 urte

Uste dot oso **ondo** dagoela. Jendia gustora ibiltzen da ardaua botatzen. Irina eta arraulizak botatzia gehixegi da, neretzat nahikoa da ardauan ohitxuriakin.



**Juanjo Etxeberria**
Mekanikaria, 39 urte

Ni ez naiz gehixegi arduratzen ardauaren kontu hoietaz, ohitxurak dira. Gaztiagoa banintz, ni ere ibiliko nintzan. San Ferminetan ere egin izan ditxut horrelakoak!






**Josefa Juaristi**
**Jubilatua, 79 urte**

**Ez jata gustatzen ardaua borrela botatzia. Ni gaztia nintzanian ez zan borrelakorik egiten. Holako ohitxurak narrazkerixak dira, lana besterik ez amantzako.**



**Koldo Aranburu**
Langilea, 39 urte

Oso geizki dago. Momentuko inbento bat da, ez dakit nundik irten dan baina beti ez da horrela izan.



**Ainhoa Etura**
**Ikaslea, 20** urte

Ohitxura politxa da, baina pixkat desfasatzan ari da. Gauza bat da tabernetan tragua eskatu eta aldamenekuari botatzia, baina supermerkatuetan ardau kartoiak erosten hastia...


Z213 E L

KORTSETERIA,OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

ILL220, ibittigke

CIAZTEENIZAKO MODA

Errosario, 25 - Telet 74 23 02



EGANK
kotxe
konponketak

P. Muguruza 18.11· 74 01 98

# ELGOIBARKO UDALAK
# SAN BARTOLOME
# JAI ZORIONTSUAK
# OPA DIZKIZUE
# ELGOIBARTAR GUZTIOI

# Zein da Elgoibarko jaiei falta zaien barraka?



**Irune Gonzalez**
**12 urte**

**Tonhola gehiago eta noria haundi bat. Ni gehixen autotxokietan ibiltzen naiz Elgoiba- ITen.**






**Mirtia Avila**
**11 urte**

**Ba ez dakit, noria edo pentsatzen dot ialtatzen dala. Edo bestela "eas- tillo misterioso" bat, Donostian egoten dia- zen bezelakuak.**



**Unai Alonso**
**8 urte**

**Neretzako "Arranoa" ekarri beharko zaben Elgoibarrera. Tiobibo haundi bat da, bertan zaudenean ematen dau hega egin behar dozu- la.**



**Aian Alvarez**
**9 urte**

**Neretzat norixia. Behin Elgoibarrera Dragoia etorri zan eta gustatuko jatan berriro ere etortzia.**



**Aintioa Lendinez**
**1 2 urte**

**Nere ustez "montaña rusa" haundi bat falta da. Bueno ni ez naiz asko ibiltzen norrnalian barraketan, baina gehie- netan autotxokiak auke- ratzen ditut Elgoibarren.**

ORTUETA



*tzpottAta,*

o 2 17 74 04 95




TINDATEGIA

*Ondo pasa jaiak!*

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

# JAIETAN ELGOIBARRERA



## MITXEL ARRIOLA

Elgoibarren jaio zen rnutil gazte hau, duela harnar urte Donostiara joan zen bizitzera. Elgoibartarra da bihotzez, eta ahal duen guztietan lagunen artera etortzen da San Bartolomeak igarotzera. "Txiki" eguna gustatzen zaio bereziki, juergarik handiena sortzen den eguna izateagatik. Donostiko "Aste Nagusia"-ren ondoan nahiago ditu San Bartolomeak, hauek " popularragoak, kastizoagoak eta partizipatiboagoak bait dira". Ziur batek baino gehiagok egingo duela topo Mitxelekin "Txiki" egunean, niki txuria ardoz estalia eta lepoan zapi gorria korapilatua.



## IDOIA ABINZANO

0.H.O.ko ikasketafieara aldegin zuen. Bertan ahizpa eta senideak zituen. Dexente urte pasa dira hamalau urte besterik ez zituela Nafarroara joan zenetik. Halere, urtero, abuztuaren 22 aldera , poltsa egin eta Elgoibarrera etortzen da Idoia, "Txiki eguna a tope kuadriliakin pasatzeko". San Fermin jaietaz ere gozatzeko aukera badauka eta ia mundu osoan ezagunak diren jai hoien alboan geure Bartoloak nola ikusten diren galdetzean, hara erantzuna: "Bixak gustatzen jataz, han eta hemen batez ere gabak berdin xa.marrak dira, tabernaz taberna, potez-pote". Enkantu berezia dute San Bartolomeek, ordea, " Elgoibarren aspaldixan ikusi ez doten jende ezaguna aurkitzen dot eta."



## PATXI GARMENDIA ETA MARIA JESUS TXAPARTEGI

Hamabost urtetan bizi izan ziren Elgoibarren, alabak ere hemen hazi zituzten. Baina lana alde batetik eta bestelako arrazoiak bestetik, Tolosa aldean kokatu zuten beren etxebizitza orain dela sei urte. Badira bi urte sasoi, ordea, zeinetan sekula Elgoibarrera etorri gabe gelditu ez diren: "Mugerza" krosa ospatzen denean eta, nola ez, Txiki egunean, San Bartolome jaietan. Eta beraiek esan bezala, "Konbidatuz gero, edozein aitzaki ona da Elgoibarrera juateko". Zapi gorria prest izaten dute urtero abuztuaren 25a hurbiltzen hasten denerako eta Patxik, gainera, jazkera berezia omen dauka. Aitortu digutenez, " jaixak lasai hasten ditugu, baina bukatu.. farra on batekinr. Eta sokamuturra? "Bai, baina lehiotikr






## EDU IRIONDO

"Sokamuturra eta kuadrilla". bi hitz hauekin laburtzen du Eduk Txiki eguna. 39 urte ditu, bizkaiako herri batetan bizi da, Mungian. Irakaslea da. Hamar urte daramatza Elgoibartik kanpo, hala ere bere sorterriko jaiak ditu gustokoen, "guriak diralako". Aitortu digunez, "Nere seme nagusiak elgoibartan̄a dela dio, Mungian jaioa den arren". Urteak joan ahala lasaiago hartzen ditu jaiak, baina oraindik ere badu sasoia zezenaren atzetik "50 m.tara" ibiltzeko eta Mauxitxarekin ere "Errosaixo kalian saltaka aritzeko". Zapi gorria? "Bai horixer. Bakarrik etortzen omen da, gainera, Mungian utzita. "Soltero" peligroso xamarra izango ote dugu Edu?

*"San Bartolome Jaiak*
*urteroko bola*
*umorea badago*
*ez zaio axola*
*jai hauekin ahaztuta*
*ez gaude inola*
*Institutua eta*
*Lanbide Eskola"*

EHI



# GUASS

*Dantzalekua*

► JdiCidR sarrera debaide

► TabernaRo tragook tabernako preziotan

egunean zabalik
arratsaldelio 5ettifik aurrcra

# ELGOIBARKO ROCK

**Badirudi musikak gazteak mugi arazten dituela. Bere inguruan hainbat eta hainbat talde berri sortzen dira urtero, uneoro, alde guztietan. Euskal Herrian ere badu ohiartzunik eta Elgoibarren bertan rockaren inguruan bost talde aurkitu ditugu: "Koska", "Zokoan", "Pneuma", "Nahi ta nahi ez" eta "Ehun Kilo".**

Min



KIDEAK: Patxi Zabaleta: kitarra eta ahotsa, 16 urte. ikaslea, Iker Rodrigez: Baxua, 17 urte, ikaslea. Gorka Regil: Bateria, 18 urte, ikaslea. Ohier Gurrutxaga: Kitarra, 17 urte. ikaslea.

Musika mota: Defini ezina, denetarik jotzen dute.
Sorrera urtea: 1991.
Debuta: I 992ko azaroan Guass-ean.
Lokala: Santa K]aran , Gorkaren izehak utzi die.
Grabazioak: Irailean grabatuko dute maketa.
Gustuko taldeak: Su ta Gar. Ehun kilo.

1991.ean hasi zen sortzen Nahitanahiez. Patxi eta Ohier udalekutara joan eta bertan, lehen aldiz. Kitarra jo zuten. Gustatu zitzaien eta musika talde bat sor zezaketela pentsatu zuten. Iker gehitu zitzaien, honek baxua joko zuen. Laukotea Gorkarekin osatu zen, baterijolea berau. Euren kontura ikasi dute, asko praktikatzen eta astean hiruzpalau aldiz entsaiatzen. Beraien hitzetan, "talde batek arrakasta izan nahi badu, ordu asko sartu behar ditu". Beraien gustokoak diren abestiak egiten dituzte, "nahiz eta jendeari ez atsegin". Mutil gazte hauen helburua, hala ere, ez da musikatik bizitzea, asteburutan jotzea, jendea ezagutzea eta jendeak gu ezagutzea da gure nahia¯; jotzen disfrutatzea, hain zuzen ere. Mementuz ez dituzte nahi beste kontzertu eman, materiale falta dela eta. Irailean aterako duten maketari esker diru pixkat lortu eta gauzak aldatuko direla espero dute.

INTXAURRAGA
zerbitzu aiakeratua
•••• sEcuc····
San Roke 11. Tel. 74 18 37

Oraiko
kafetegia

¶10ZIC
DIETETIKA
KONTROLA
Foruen plaza,
`1 91. 74 08 78

0"k) lama 1.41,14Ji.
e e
eve.a.tzce.400€e,,,c;z
Tar 74 00 69
San Frantzisko,40 '

# ZIRKUITOA

Lagunarteko jolas hat bailitzan hart?en dute hasieran. Dirua aurrezten joan, kitarra bat erosi eta lehen punteoak eman, bateriarekin musika, eta ez zurata., egiten saiatu, teklatuaa̅ekin erritmo ezberdinak sortu... Aniets baten inguruan errotzen da hazia eta entsaiu gogorren ondoren lehen kontzertua suertatuko da. Haziak eman du lehen fruitua.

Ez da bide erraza izaten gazte hauena. Gaur egungo merkatua eskuratzea ez dago guztien aukeran, eta hori badakite. "Hertzainak" taldeak abestu zuen bezala "Euskadin "rock and roll"ak ez du sekula dirurik ematen". Hala ere, etsi gahe jarraitzeko prest daude. Baldintza bakarra behar da, musika maitatzea. Eta ilusioa. Hortik aurrera... denborak esango du.. Batzuk hasi berriak, badira tren hau duela 20 urte hartu zutenak ere. Guztien asmoak antzekoak dira eta denen desioa litzateke jendaurrean jo, disfrutatu eta, lainera hortik bizitzea. Guk talde elgoibartar hauei zorterik onena opa diegu; bizitzan behin baino izaten ez dela esaten duten aukera hori ea iristen zaien. Bitartean, ilusioa eta itxaropena hor dituzte. Eta lana.

## PNEUMA

**Musika rnota:** Punkyrantz jotzen dute.
**Sorrera urtea:** 1992.eko uztaila.
**Debuta:** 1993.eko urtarrilak 15a Elgoiharren.
**Lokala:** Urasandin.
**Grabazioak:** Ez daukate.
**Gustuko taldea: Sex Pistol .**



**KIDEAK: Txeto: Kitarra, 20 urte. Raul: Baxua, 17 urte. Migel: Ahotsa, 20 urte. Ivan Cendolla: Kitarra, 18 urte. Jose Bateria, 19 urte.**

Berezia da oso talde honen izenaren esanahia. Grekeratik datorren hitz bat da eta "bizitzaren hasiera" esan nahi du. Filosoflako liburu batetatik atera zuten. Musikaren historian txoko bat lorta nahi dutenaren izpi beharbada.Giza arazoak lantzen dituzte gehienbat beraien abestietan. Letrak Miguelek egiten ditu, musika guztien artean. Hauek duten arazorik handiena. beste askok bezaia. rnateriale falta da, diru falta alegia. " Beste herri batzuetatik deitu gaituzte beina ezin izan gard joan, ez daukagu tresneria egokia". Musikatik bizitzea inoiz pentsatu duten galdetzean ara erantzuna: "Ojala!". Dena esana dago. Hala ere posible zaien guztietan entsaiatzen dute. lagun baten aitarena den lokalean. Arrakasta izateko? "Gogoa, entsaioak eta dirua".






## mith k31.6

**KIDEAK: Jon Zabala: Ahotsa, 27 urte, elgoibartarra. Jabi Bergara: Kitarra, 34 urte, ermuarra. Jon Iturrino: Kitarra, 22 urte, mutrikuarra. Kristian Etxabe: Baxua, 22 urte, eibartarra. Camilo Fernandez: Bateria, 27 urte, elgoibartarra.**



**Musika mota:** Euskal heavy delakoa.
**Sorrera urtea:** 199 I .eko urrian.
**Debuta:** I 99 I .eko abenduan Ondarruko gaztetxean.
**Grabazioak:** 1992ko otsailean lehen maketa IZ estudioetan. Irailean lehen diska grabatuko dute Ohiuka disketxean
**Lokala: Urasandin.**
**Gustuko taldeak:** Bakoitzak bere

"Ehun kilo" sortu aurretik, Jon Zabala, Camilo eta Jabi, 80. hamarkadako lehen urtetatik 1988 arte iraun zuen Elgoibarko "Napalm" taldeko kide izan ziren. Hainbat emanaldi egin zituzten eta maketa bat ere grabatu zuten baina ez zen banatu. 1988an desegin zen "Napalm" eta bi urte beranduago Jabi eta Camilo elkartu ziren berriro ere entsaitzen hasteko asmoz. Aste batzuk beranduago Jonekin jarri ziren kontaktuan. Poliki-poliki talde berri bat sortzeko ideia forma hartzen hasi zen. 1991.ean, Jon Iturrino eta Kristian Etxabe gehitu zitzaizkien, "Hamen" talde mutrikuarreko kideak izandakoak. Taldeari izen bat ernatea baino ez zitzaien geratzen. Abeslariak pisuarekin zituen arazoak kontutan izanik "Ehun Kilo" hautatu zuten. Dagoeneko gauza berririk egitea oso zaila dela esan digute, "hala ere lehendik sortuak dauden estiloak berritu daitezke". Ilusio inclartuz ekin diote abentura herriari. Zaila ikusten dute musikatik bizitzea, baina behin hasiz gero bukaera arte jarraitzeko prest daude. Musika talde batek arrakasta lortzeko forrnula: "partaideak lagun izatea, gogor lan egitea eta ideiak izatea" .

## ZOKOAN

**KIDEAK: Karlos Mark: Ahotsa, 25 urte, medikur•:, ikaslea. Roberto Osoro: rra, 22 urte, transportista Alberto Raigoso: Kitarra, urte, leuteria ikaslea (Bib nak egiten). Alberto Guti rrez: Baxua, 20 urte, igel filologia ikaslea. Gerar Lariz: Bateria, 24 urte,** karr1.1.-- reroa. **Iban Urizar:** Tronpe":. **18 urte, ikaslea. Miguel** Soinu teknikaria. Oscar gas: Laguntzailea.

**Musika mota: "Kaleko** rock funky eraginekin.
**Sorrera urtea: 1991.**
**Debuta:** 1991 .eko maiatza Plaentxiko gaztetxean.
**Grabazioak:** Maketa bat.
**Lokala:** San Lorentzon,



ELENA
fileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

ZIZLDUZ
iTURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU INSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
n1d, 4. a4/41.Ucw4c
4∀~2*aUk
IK4,hp.a,ta/k
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Br urte besterik ez dira pasatu n hauel elkartu eta jotzen hasi netik. Denbora honetan beren kulurna dexente loditu da. 500 ako tirada zeukan maketa bat zuten, "abuztu alclera, oso txarra" baina, denak saldu eta gehiago egin behar izan dituz- euren kontura. "Radio Euskadik" latzen duen nnaketa lehiaketan bugarren postua lortu zuten en- k ernandako botuei esker. "La la Records" taldearen teloncro dira. Eta bidea hasi baino ez egin. Hala ere gauzak ez dituzte ere errazak ikusten. Lan asko n behar den arren gaur egun eta padrino onak" beharrez- direla uste dute; "aukera ema- badizue gero taldearen esku balioa demostratzea. batzuri ez zaie iristen aukera hori".

Jendaurrean gustora sentitzen "gure ilusioa da". Abeslaria u berria dute.



1'61144

**KIDEAK: Aitor Salaberria: abeslaria, 21 urte, eibartarra. Txelu Rodriguez: Teklaria, 22 urte, ermuarra. Txarli Robles: Baxua, 28 urte, eibartarra. Gabi Agirregomezkorta: Kitarra, 50 urte, elgoibartarra. Endika Larrañaga: Kitarra, 26 urte, elgoibartarra.**



**Musika mota:** Jazz-rock, blues...
**Sorrera urtea:** Orain dela 20 bat urte.
**Debuta:** Eibarko "Coliseo" zineman.
**Grabazioak:** Bi LP.
**Lokala: Pedro Muguruzan.**

Talde beteranoena dugu Koska. Duela 20 urte sortu zen. Ilala ere, taldekideak aldatzen joan dira eta orain ere ,irailetik atirrera, aurpegi herriak ikusiko ditugu. Blues-a, jazz-a. roek gogorra... denetarik jotzen dute eta euskeraz nahiz ingelesez abesten, Beraien hitzetan " oso erraza da anplifikadore bat jarri eta kitarra batez zarata ateratzea", baina Koska bestelako musika egiten saiatzen da, "garbiagoa". Gainera argi dute: "musikaren ikasketek ez dute amaierarik, egunero ikasten da zerbait berria". Guztiek bezala hauek ere oso zaila ikusten dute musikatik bizitzea. Batez ere gaur egun "musikaren merkatua rnultinazionalen esku dagoelako". Gabik esart bezala, "irratietan entzuten dugun musika ezagutzen dugu eta irratietara doan rnusika disketxe handiek bideratzen dute". Lokal txiki zein plaza bandietan, bietan jotzea gustatzen zaie, "bakoitzak bere enkantua dauka nahiz eta toki irekietan jotzeko ekipo hohea behar den".

PINTURAK
• Fatxadok
• Komunitateak
• Mota guztiethko lanak
Son Roke 30 bellea Tel. 74 36 52

ITZALA Edergintza
- rizer~ ~ce,ed"..eail
- 7,1,~
- Sedc~ua
San Frantzisko, 49 1 esk. Tel. 74 43 03

# Gillermo Garate:
# "Herri bat aurrera ateratzeko kultura beharrez koa da"

**Gillermo Garatek bi urte daramatza Kultur Batzordeko Buru bezala. Lana gustoko du nahiz eta beharbada behin baino gehiagotan burukominik eman izan dion. San Bartolome jaietako arduraduna denez, solasalditxo bat izan dugu berarekin. Gai serio eta arinagoetaz ere hitzegin dugu, sasoiak alitasun eta freskura eskatzen du eta. Festak garai batetan, herritar soil bezala, askoz gehiago disfrutatzen zituela aitortu digu, eta bera ere ibili izan dela lagunartean elkarri ardoa botatzen!**



**- Zein da Kultur Ba-tzordeko Buruaren zeregina?**

- Pnlitika-kultural egoki bat aurrera eramatea arlo ezberdinetan: gazteak, heziketa, kirolak, jaiak... **Beti** ere, helburu bakar bat izaten dugu: herritarren bizitza maila hobetzea. Nik bi urte daramatzat postu honetan eta hasieratik argi neukan Elgoibarri azpiegiturak falta zitzaizkiola. Gaur egun hor dauzkagu liburutegi berria, Kultur Etxea, Mintxeta, Tenisean jokatzeko pistak...

**- Nahikoa al da Elgoibarrek kulturarako duen aurrekontua?**

- Gaur egun dagoen hezalako krisi orokorretan, kultura izaten da lehen gauza aurrekontuetatik baztertzen. Niretzat elementu beharrezkoa da kultura herri bat aurrera atera nahi bada, baina logika arrazional baten arabera beste gauza batzuk dute lehentasuna; adibidez, errepide zaharkitu baten konponketa.

**- Joaten al da jendea antolatzen dituzuen ekintzetara?**

- Batzutara asko, bestetara ez. Gaur egun kultur kontsumoa etxean bertan egiten da. Telebista piztu eta bertan ikus dezakegu antžerkia, edozein pelikula bideoz goza dezakegu eta musika **entzuteko** ikaragarrizko aparatuak daude.

**- Kultur Elkarte guztiek jasotzen al dute diru laguntzarik?**

- Lehendabizi legalizatua egin behar dira: "Elkarteen erregistroan" izena eman behar dute, estatuto batzuk izan behar dituzte eta, noski, arduradunak. Bestalde gure baldintzak ez dira geiegizkoak; produktua aurkeztu behar digute herri mailan egin dituzten, edo egin nahi dituzten

**OIERKI** ASZENSOREAK
Urrutira deitu gabe bertakook eta segiduan konponduko dizugu aszensorea
(943) 11 35 15 • — ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

**AZPELETA** elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
atdCX /1-44.4 j-Ria4/1
San Frantzisko 51. behea. TeI: 74 12 38

ekintzen zerrenda batekin eta guzti horri dagokion aurre-kontuarekin. Ni naiz herritai ɐruztion diruaren aciministra-tzailea eta denoi gustatzen zaigu norberaren dirua ondo gastatzea.

**- Zer dira jaiak herri haten izaeran?**

Zentzu guztietan partizi-pazio hanthagoa dagoen sasoia. Eguraldi ona egoten den garaia da, oporrak dira, norherak bestelako alaitasun hat izaten du... Komunikazio gehiago egoten da denon artean. Gure lehen helburua festetan jende guztiak ahalik eta hobekien pasatzea da.

**Nola prestatzen duzue egitaraua?**

- tirtarrila aldera hasten gara lasai kasai, gero Trinita-te inguruan azeleratu behan¯a izaten dugu uztaitean a tope jarri arte. Elgoibarren badira zenbait egun aspalditik ospatzen direna: Bezpera, San Bartolome bera, Txi-kia... Hoietan egitaraua nahi-ko finkatua izaten da, urtero antzera xaman¯a. Oinarri bat izaten dugu eta horren ingu-ruan gauzak gehitzen dira urtero urtero. beti ere berri-kuntzak sartzen saiatzen garelarik.

**- Nola pasako dituzu zuk jaiak?**

- Lehen askoz hobeto pasatzen nituen, herritar bezala. Orain ardura bat dau-kat, hueltaka ibili behar naiz



Saiatu eta gogor ekinez gero asko ]ortu daitekeeia uste du Gillermok.

dena behar bezal atera dadin, akatsik gabe.

**Juergazalea zara?**

- Garai hatetan bai. Txiki eguna espeziala zen. sagra-tua. Kanpoan bizi nintzen eta urtero egun horretan Elgoibarrera etortzea derri-gorrezkoa zen. Aspaldian ikusi gabeko lagunak elkan-zen ginen, kuadrila osoa eta geure kontuetaz berba egiten genuen.

**- Zer esango zenuke gaur egungo Txiki egunaz?**

- Nere gaian mahatsarekin aritzen ginan. Sokamuturra ostian mahatsa erost eta batak hestiari botatzen genion. Dana "zisko" egina uzten gendun. Denborak aldatzen dira eta orain ardo-aren ohitura dago, ni ere ibili

**Gaur egun ardoaren ohitura dena, nere garaian mahatsarekin egiten zen.**

izan naiz ardoa botatzent Batzuri ez jakue gustatzen baina egun bat da... Gusta-tzen ez jakonak badaki zer egin ez dadila azaldu zuri-zuri jantzita hestiok probo-katzera ze badaki zer dau-kan.

**- Andra Maixak ala San Bartolomeak?**

- Zalanizarik gabe San Bartolomeak. Ni elgotbarta-rra naizelako eta hernengoak beste herrietako festak baino konpteloagoak direla uste dudalako. Azpeitiko San lnaziotan jendetza ugaria ihiltzen da. baina zezen korridak kenduz gero. ez da gauxa handiegirik aeratzen. Elgoibarren abaniko oso zabala eta deniaseko ,giroa daukagu.


arnua S))AD.0001).

GARBIKETA *ZERI3177VA*

*PERTS9NA NAGUS1EN*

*ETA EZENDUEN ZUNKETA.*

Tel: 74 22 72 -74 2448.

Atotteaut ehemiiitza

1 SOLARIUMA

1 Aurpegi eta gorputz tratamenduak

Depilazioak hotz eta beroan

San 4. zr 74 27 25 ELGOIBAR

ihal¯Ond9

effehy42

Giza eskubideen Plaza

# Abuztuaren 23a, Etxanizen omenez

**1959. urte arte "Club Deportivo"-ak antolatzen zituen txirrindularitzaren inguruko guztiak. Urte horretan "Gure Bide" elkartea sortu zen, eta "ganora gitxikin" egindako proben ondoren, "Etxaniz Memorial" ezaguna hasi ziren ospatzen. San Bartolome bezperan kokatua betidanik, aurten XLVI. edizioa jokatuko da.**


Txirrintlularitia zak uguri biltzen da helniugun urtero.

"Etxaniz Memorial"ean 1712() urte bitarteko gazteek hartzen dute parte. bigarren kategoriako afizionatuek. 117 km. guztira, orduko 40 km. inguru betetzen ditu txirrindulariak. Elgoibarren hasten da itzulia Soraluze. Bergara, Mendaro, Deba, IvIotriko, Azkoitia, Urretxu eta Antzuola herrietatik pasa ondoren Elgoiharrera bueltatuz. Garai batetan Arrona eta Itziar ingurura ere luzatzen zen ibilaldia. Debako udalak ezetza eman zuen arte. "Etxaniz Memoriala" abuztuan ospatzen da eta garai hortan kotxe asko joaten denez kosta aldera, kaltegarria izaten zen errepidea ixtea. Hortaz, frogaren nondik norakoa Urretxurantz aldatu zen.Portu gogorrak ere igo behar izaten dituzte txirrindulariek: Kalbarioa, Azkarate eta Deskarga.

**Lehendakari txapelketa**

Sariak banaka eta ekipoka ematen dira, hamabost guztira. Froga irabazten duen txirindulariak 20.000 pzta eta trofeoa jasotzen ditu. Puntu gehien biltzen dituen ekipoari, berriz. 5.000 pzta banatzen zaizkio, trofeoarekin batera.

"Etxaniz Memoriala", Txirrindulari Federazioak urtero antolatzen duen "Lehendakari Txapelketa"ren barruan sartzen da. Urtean zehar herri ezberdinetan hainbat txirrindulari itzuli ospatzen dira. Tenporada amaitzen denean, abuztu bukaeran, puntuaziorik altuena lortu duen txirrindulariak lortzen du trofeoa.

Urte mordoxka pasa dira 1959an lehen aldiz "Etxaniz Memoriala" ospatu zenetik. Eta xelebrekeriarik ere gertatu izan da. 1962an, adibidez, guardia zibilak hogeitabost txirrindulariri 5(X) peztatako isuna ezarri zien ezkerreko karrilean ibiltzeagatik! Eskerrak Txirrindulari Federazioa argi ibili eta dena konpondu ahal izan zuela!

## *Zergatik Etxaniz?*

Beharbada batek baino gehiagok ez du jakingo San Bartolometako txirrindulari froga honek zergatik duen Etxaniz izena. Askori ezezaguna izango zaie Etxaniz. Nor zen Elgoibartar hau?

¯Gure Bide" elkartekoek esan digutenez, Etxaniz gaztea mutil aparta omen zen kirolean. Umetatik, txirrindularia, diska jaurtiketa, altuerako jauzia eta beste hainbat kiroletan aritu izan zen, bai eta zenbait sari irabazi ere. Ez zuen, ordea, bizitzaz luze gozatu. Hemeretzi urte besterik ez zituela, gripe izurrite batek eraman zuen elgoibartar hau. Merezia bere omenez urtero ospatzen den "Etxaniz" txirrindulari froga.



AITZ BIZKAR
ARDOAK
ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA
Errosario 18. Tel. 74 02 37

GORASTIZIK
LIBURUDENDA
Padd..«44 eta id4—4 Pktacuala
Errosario 16, ž 74 03 88

# Elgoibar Hiriko I. Aizkolari eta Harrijasotzaile Txapelketa

**Gehienek, San Bartolomeetako Baserritar egunean Deba Beheko Herri Kirolen finala gogoratuko dute. Arratsalde partera jendetza ugaria biltzen zen Foruen Enparantzan. Aurten, ordea, nobedade bat izango dugu. Dirudienez, herri kirolak antolatzeak nahiko istilu sortzen zituen eta zenbait talde partehartzailek atzera egin dutenez, ekintza hau egitarautik ezabatu da. 1993an, beraz, "Elgoibar Hiriko Igo aizkolari eta Harrijasotzaile Txapelketa" ospatuko da.**



Kolpez-kolpe jo eta ke arituko dira aizkolariak.

**Bikoteka** hartuko dute parte. Gipuzkoa osoko onenak bildu nahi izan dira. Lehen mailakoak izango ez diren arren hoherenetarikoak izango ditugu abuztuaren 28an Elgoibarren.

Fausto, Ayerbe, Elorriaga, Erasun eta Peñagaritano izango dira aizkolariak. Kanal-erdiko zortzi ebaki egin beharko dituzte. ahalik eta denbora laburrenean.

Harrijasotzaileek, berriz, 100 kilo pisatzen dituen zilindroa altxatu beharko dute, hirurogei aldiz. Hemen ere, zenbat eta denbora gutxiagoan lortu jasoera guztiak, orduan eta hobeto. Zilindroa egitura zaharrekoa izango da. Gaur egun erabiltzen diren zilindro modernoek kopa itxura hartzen dute, behekaldean hutsune handia bait dute, eta eskuek errezago hel dezaketenez, arinago altxatzen da.

Elgoibartar bat arituko da harrijasotzaileen artean, Javier Arriola 19 urte dituen gazte honek, Trinitate jaietan 100 kilotako zilindro modernoa 108 aldiz altxatzea lortu zuen, bere marka hautsiz. Fausto Mugerza, mutrikuar aizkolariarekin osatuko du bikotea.

45.000 eta 60.000 **pzta** bitartean, txapela eta trofeoa eskuratuko dituzte irabazleek.

Orain arte baserriko jendeak praktikatzen zituen, batez ere, herrikirolak. Kaletarrak ikusle soil izatera mugatu izan dira. Badirudi, ordea, poliki-poliki, hi munduak hurbiltzen hasi direla. Gainera, kirol hauetarako ez da, askok pentsa dezaketenaren aurka, prestaketa bereziegirik behar, ez eta sakrifizio apartekorik ere. Guztietan bezala, edana eta erretze kontuak kontrolatu behar dira eta, noski, gogor lan egitea.


**rtAES Elektrizitat**

**Argiztapena • Instaiakuntzak**
**Portero automatikoak • Videoporteroak**
**Anrtena kolektiboak • eta abar...**

Olasope **kalea** 6. 1. plonta 47z6k. 74 3577



EGONDO,

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kaleo 4-7 13. 74 34 08-04 FAX 74 34 08

# "Vete .Z~eft, le:otea

**27**
**OSTIRALA**
**10,45**

"INSTINTO BASICO"

Zuzendaria:
P. Verhoejen

**30**
**ASTELEHENA**
**10,45**

"SUPER MARIO BROSS"

Zuzendaria:
Jankel Orton

**31**
**ASTEARTEA**
**10,45**

"DRACULA"

Zuzendaria:
F.F. Copola

# SAINT - GERONS

# Txokolateak

75 5115 4:€94ek, 37 Atendaito

# Jendaurreko IV Margo Lehiaketa

**Duela lau urte ospatu zen lehenengo aldiz. San Bartolornetako programan umeen eguna pobre xamar zegoela eta, katekistengana jo zuen udaletxeko kultura zerhitzuak. Pare bat bilera egin ondoren sortu zen ideia hau, haurrei zuzenduriko jendaurreko margo lehiaketa bat antolatzea, hain zuzen ere.**



Izaskun Sarriugartek irabazi zuen iaz.

**E lig oiba rko katekistek** badute bestelako esperentziarik haurrentzat hainbat ekintza antolatzen. Beraz, udaletxetik laguntza eskatu zitzaienean berehala jarri ziren lanean. Umeak, eskulanak, natura eta festa nahastu zituzten, "Jendaurreko margo lehiaketa¯ sortu zuten arte.

Iaz 80/90 partaide inguru bildu zituen ekintza honek. Txikienak bi urtetxo besterik ez zituen, 14 urtetako gazteak ziren nagusienak. Materialari dagokionez, nahi duenak etxetik bat eraman dezake, besteei folioak banatzen zaizkie. Hori bai, guztiek eraman behar dute etxetik arkatz, margo, akuarela zein bestelako tresnak margotu ahal izateko. Gehienak plastidekor eta egurrezko pinturekin aritzen diren arren, badago oleo edo ikatza erabiltzen duenik ere. Norberak gustokoen duen teknikaz margo dezake.

Orain arte, aurreko hiru edizioetan, gaia lihrea izan ornen da. Neska mutilek denbora epe bat zuten marrazkia egiteko. Nahi zuten lekura joan zitezkeen eta paisai, objektu zein pertsonak irudikatu zitzaketen. Aurten, ordea, antolatzaileen asmoa beste bat da: haur guztientzat mahaiak jarriko dituzte Foruen Enparantzan eta denek gauza bera marraztu beharko dute: itsasoa. Era honetara jendeak herriko gaztetxoak ikus ahal izango ditu, jo eta su margoak hartu eta paper zuriak. koloreztatzen.

Sari aldetik ere eskuzabal dabiltza. oso. Partehartzaile guztiek zerbait jasoko dute: goxokiak, baloiak, marrazkiak egiteko koadernoak... Gero adinaren arahera kategoriatan banatzen dira , eta irabazIeei kaballeteak, margoz beteriko kaxa dotoreak eta antzeko opariak banatzen zaizkie.

Lagun koadrilla osoak, anaiarrebak, beren kabuz joan ia 100 dira urtero urtero margo lehiaketan parte hartzen duten elgoibartar gaztetxoak. Zaletasunik badago. antza denez, Beharhada neska-mutil hauen artetik Zuloaga berri bat sortuko zaigu1






# Elgoibarko mazeroen 40 urteak

**Zuria eta gorria, bular-aldean Elgoibarko eskudoa. Guztia urre kolorez josia. Halakoxea da mazeroen jazkera. Zeremonia berezietan errege, agintari zein korporazio publikoa osatzen dutenen aurretik joaten omen dira. Esku artean mailu bat eramanaz, pertsonaia xelebre hauek duintasun sinbolo bat dira aspalditik.**



**Urtero** mazero bezala irteten direnek antzeko neurriak behar dituzte izan.

**Euskal Herriko** hainbat tokitan oraindik ere jarraitzen du ohitura honek. Elgoibarren, adibidez, urtero ikusten ditugu San bartolome bezperan, abuztuaren 23an. Goiz partera Salbea ospatzen da egun horretan. Udal Korporazio osoa elkarrekin abiatzen da eleizara, aurretik bi mazero joaten direlarik.

Bidaia dezagun denboran zehar. . Koka gaitezen 1600 urtean. Nafarroan badira garai hartako dokumentoak zeinetan mazero eta diputatuen jazkera agertzen bait den. Araban ere, baina beranduxeago, XVII-XVIII, mende bitartean aurkitu izan dira zenbait agiri pertsonaia bitxi hauen ingurukoak. Eta Bizkaian? 1638.eko Batzar Orokorretan eman zitzaien paso mazeroei. Hauek, gainera, soldata bat jaso zuten beraien lan sinbolikoaren truke.

Garai haietan, antza denez, gaur egun baino elkarrizketa gehiago ematen omen ziren diputatu eta erregetzaren artean. Kasu hauetan ere mazeroen presentziak bazuen pisurik, duintasun ezaugarritzat hartua bait zen.

Gatoz XX. mendera, **1953. urtera** hain zuzen. Hernen kokatzen da mazeroen ohitura Elgoibarko historian. Orduan herriko alkate zen Jose Rezolaren eskutik sortwzin ideia. Bi mutil gazte aukeratu eta beraien neurriko jantzi zein oinetakoak egin ziren. Ordutik ona urtero mazero bezela irtengo direnek garai hartako mutil haien neurriak behar dituzte izan; dagoeneko eginak dauden arropak erabil ditzaten, noski.

Koldo **Lizarralde (Erredakzioan** itzulia)


GENERALI

ASEGURU ETXEA
Aitor Eizagirre Ondarza
200105. Aseguru Agentea

**Era guztietako aseguruak ditugu:**
- KOMERTZIOAK
- ETXEBIZITZAK
- ISTRIPUAK
- BIZITZA ASEGURUAK
- AUTOMOBILAK
- ARRISKUAK (denetarik).

*Santa Ana 20. Tel: 74 41 01. 20870 ELGO1BAR*

# u. I 11ATA GIMNASIOA

## JUDOA



## MUSKULAZIOA



## TAEKWONDOA



## GIMNASIO ETA AEROBIC



**Santa Ana 46 behea. Tel. 74 07 93 ELGOIBAR**



TEKNOILCOGIA ALENIANA

# ZATOZ BERRIKUNTZA GUZTIAK DISKUBRITZERA

SEAT

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 Tel. 11 36 42 Eiba